



(+34) 943 424119
San Martin, 36 - 3.B
20005 DONOSTIA

Farmaberti

FARMAZILARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



Kannabisaren

erabilpen terapeutikoa

Aurreko irailaren 20an Nafarroako Parlamentuak, UPNren oposizioarekin eta gainerako taldeen aldeko botoekin, Batzarre taldearen proposamen bat onartu zen zeinak Nafarroako Gobernari eskatzen baitzion administrazio publiko desberdinen aurrean gestioak egin ditzala kannabisaren erabilpen terapeutikoa baimentzeko. Gainera, UPNren ezetzarekin, CDN eta EA-EAJren absentsioarekin eta PSN, Batasuna, IU eta Batzarreraren aldeko botoekin onartu zen Osasun Ministerioari proposatzea baimen diezaiela hiritarrei kannabisa edukitzea, xedeak sanitarioak direnean. Era berean, Kataluniako Parlamentuak, aho batez, antzeko zerbait eskatu zion Generalitati joan den maiatzean. Kanadan, halaber, ekainean onetsi zen kannabisaren erabilpen terapeutikoa, onartu arren bere eraginkortasunaren probak falta direla. Bestalde, Eskola-Populazioari egindako Drogei buruzko azken Inkestaren ondorioz garrantzisuenetako bat izan da gaur egun bost gaztetatik batek maiz kontsumitzen duela kannabisa Estatu espainiarrean. Azken datu hauek aurreko uztailaren jakitera eman ziren.

Iritzi desberdinak daude marihuana agente terapeutiko gisa erabiltzeko orduan. "Monografia cannabis" liburuan irakurtzen dugu eztabaida zientifikoaren barnean hiru alderdi desberdin daudela:

● **Marihuanaaren debekuari atxikitzea.** Alkohola eta tabakoarekin borrokan ari garen garaiotan zentzugabekeria izango zen marihuanaaren kontsumoa bultzatzea, helburu terapeutikoak lortu nahi izan arren. Ikerkuntza farmakologikoa bideratu behar da berariazko egoera patologikoetan eragin espezifikoak duten konposatu kimikoak lortzeko, posologia kontrolatua eta egonkorra dituztenak, marihuanaaren inhalazioarekin bete ezin direnak, alegia. Gure kulturaren, helburuak terapeutikoak izan arren, marihuanaaren erretzea droga debekatuen kontsumoarekin loturik dago, beraz, marihuanaaren kontsumoa onala zabaltzen bada, arrisku handia dago beste droga gogorragoak hartzeko.

● **Tratamendu aringarri gisa marihuanaaren erabilpena baimentzea.** Kontuan hartu behar da egoera itzulezinetan pa-

2. orrialdean segitzen du ^{***}





zienteenganako praxi medikoa aringarria izaten dela kasu askotan. Kasu hauetan, bada, marihuana emateak balio dezake oinazeak arintzeko eta gaixoa lasaitzeko. Honez gain, gaixoei halako euforia eragiten badie eramangaitza den egoera arintzen lagunduko die, beraz, jokaera mediku hau guztiz bidezkoa izango zen. Kimioterapiak eragiten dizkien goragaleak arintzearen onkologo askok uzten diete haien pazienteei marihuana erretzen. Honela, zeharka bada ere, haien emozio-egoera hobetu egiten da eta haien gaixotasun terminal eta itzulezinaren oinazeak arindu.

➤ **Eragin terapeutikoa duen gaixotasun guztietan erabiltzea.** Marihuanaren erabilpen medikoaren jokabiderik permisiboena da eta haien defendatzaileak honelako arrazoiak oinarritzen dira:

Marihuana medikamendu segurutzat jo daiteke zeren funtzio fisiologiko garrantzitsuenetan duen aurkako ondorioak urriak baitira eta galdosienatik ez da hildako kasurik erregistratu. Erabilera medikoko eta preskripzio legaleko medikamentu askok (hipnotikoak, analgesikoak, opiazekoak etab.) baino menpekotasun gutxiago sorrazten du.

Legeek eta arau burokratiko interesatuek ezkutatu egin dituzte askotan kannabisaren eragin terapeutikoaren ebidentzia zientifikoak frogaturiko datuak eta kannabinoideen erabilpena egokiespen kliniko bakar batera murriztu egin dute, hau da, eragin antiemetikoa minbiziaren aurkako kimioterapiaren.

Ezin esan da kannabisa medikamendu edo abusu droga dela, biak baita. Garrantzitsuena eta funtsezkoena preskripzio medikoa eta laket-erabilpena bereiztea izango da. Bereizte hori lortzen bada, kannabisak, agian, beteko luke farmakopearen lekuren bat, preskripzio mediko legaleko beste farmako anitzek bezala.

Ondorio gisa esan daiteke kasu bakoitzean eta kannabinoide ezberdinekin onura-arrisku balantzea finkatu behar dela, zeren gehien toxikotasun akutua arras apala izan arren, erabilera kronikoa denean aurkako ondorioak organo eta sistema ezberdinetan oso ohizkoak izaten baitira, esaterako, asaldua psikikoak eta nerurologikoak, endokrinologikoak eta obstetrikokoak fetua erasanez, eragin immunoezabatzaileak, bihotz-hodietako asaldurak, biriketakoak, kartzinoma, etab.

Dena den, kannabisa eta kannabinoide natural zein sintetikoek buruz dagoen informazioa oraindik oso urria da eta oinarritzko ikerkuntza zein ikerkuntza klinikoa areagotu egin behar da.

2001-2002

Gripearen aurkako txertoaren kanpaina

Gripea influenzaren birusak eragiten duen kuadro zorrotza da. Gripea eta ohiko katarroa bereiztea beharrezkoa da. Hauek dira gripearen ohizko ezaugarriak: Ondoeza bapatean agertzen da (katarroan ez), hiritik zazpi egunera irauten duen sukar handia (katarroan normalean ez), buruko mina, muskuluetako mina (katarroan ez), eztula, irensterakoan eztarriko mina, goserik eza, ... Gripea okerreratuz gero, neurologia mailan eta arnasketa aparatuan besteak beste, zailtasun handiak ekar ditzake. Izan ere, arnasketa aparatuko infekzio zorrotz guztien erdiak, birus hauek sortuak dira. Haur eta edadetuetan, urte sasoi hotzetan, maizago agertzen da gripea. Gripea airean doazen partikulen bidez zabaltzen da. Honela, epidemiak sortu eta sei-zortzi astetan elkarre osora zabaltzen da. Gripeak, beraz, diru galera izugarriak ekartzen ditu, lan galtze ordu ugariak alde batetik, eta botika eta eritexeko gastuak bestaldetik.

Gizakiaren A eta B erako influenzaren birusak eragiten du soilik, C erakoak ez. B erako birusak gizakiari bakarrik erasotzen dio eta nahiko erregularra da bere konposaketari dagokionez. A erakoak berriz, bere azalean dituen, eta birusaren antigeno jokaera ezberdinak defenditzen dituzten proteinak, era askotakoak ditu (15 hemaglutinina eta 9 neuraminidasa ezberdin). A erako birusak zenbait abererengan ere eragiten du, epidemiak bukatzeko eginez. Birusa genetikoki oso aldakorra izateak txertoa egitea asko zailtzen du. Batzuetan, erantzun immunea eragiten duten proteina batean, mutazio puntual bat gertatzen da. Bestetan berriz, birusaren bi andui edo zepa ezberdin elkartzen dira erasotzen den zelularen barnean, honela antigeno ezezagunak gertatzen dira gorputzak aurrez sortu dituen antigorputzentzat.

■ Gaur egun honako taldeentzat gomendatzen da txertoa:

- 65 urtetik gorakoentzat
- Diabetesa, EPOC-a eta beste zenbait eritasun kroniko dituztenentzat, edo eta beraiekin bizi direnentzat.
- Gripea, arrisku taldekoren bati kutsa diezaiokeenentzat (Osasun saileko langileak eta abar).

Urtero mundu guztiko gripearen azterketa egin ondoren, OMS Munduko Osasunaren erakundea-k erabakitzen du zein andui edo zepa izango diren txertoak.

■ Eta aurten ondorengo hauek gomendatzen dira:

- A/Moscow/10/99-ren antzeko bezala: A/Panama/2007/99-tik eratorria den RESVIR-17 birusa.
- A/New Caledonia/20/99-ren antzeko bezala: A/New Caledonia/20/99-tik eratorria den IVR-116 birusa.
- B/Sicunani/379/99-ren antzeko bezala: B/Johannesburg/5/99, B/Victoria/504/2000 edo B/Guangdong/120/2000 birusak.

Txertoa, hartu eta hamar egunera denez eraginkorra, eta sei hilabete irauten duenez eraginkortasunak, urria da garai egokia txertoa hartzeko negu osorako babestuta egon dadin.



Zientziaren ekarria ardoaren munduari

Joan den maiatzaren 2an, Diego Torrea Goñi farmazilari gazteak "Zientziaren ekarria ardoaren munduari" hitzaldi interesgarria eman zuen euskaraz Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialean. Bildutakoen dastaketa-saio praktikoko batek akabera eman zion hitzaldiari. Diegok Farmaziakasketak Iruñean burutu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan doktore-tesia egin berri du.

Diego, zein izan da zure tesiaren gaia?

Ardoaren legamia eta bere eragina hartxiduran. Ikerketa lan honetan ardoa egiteko bi metodo alderatu ziren. Betiko metodoarekin, ardoa hartzitu zen mahatsak dituen legamiekin. Bigarren metodoan, muztioari legamia komertzialak gehitu zitzaizkion ardoa egiteko. Hartxiduran zehar laginak hartu eta substantzia nitrogenodunak analizatu ziren.

Zergatik substantzia nitrogenodunak?

Substantzia hauek hagitz garrantzitsuak dira hartxidurarako, elikagaiak baitira legamientzat. Ardoaren aromak eta hartxidura prozesuaren abiadura, besteak beste, ezberdinak dira substantzia nitrogenodunen erabileraren arabera. Ikusi genuen legamia komertzialak erabiliz arazo batzuk ekiditen zirela zeren betiko metodoarekin batzuetan hartxidura motelegia baitzen eta ardoa alkohol gutxi eta azetiko, hau da, ozpinari usaina ematen dion substantzia, gehiegi baitzuen.

Zein da legamien egitekoa?

Mahats muztioa ardo bihurtzen dutenak legamiak dira, azukreak hartzen baitituzte alkohola eta bertze hainbat substantzia bilakatuz. Tradizionalki, ardoa hartxidura berezkoaren bitartez egin da, hots, mahatsak dituen legamiekin. Aitzitik, gero eta arruntagoa da muztioari legamia hautatuak gehitzea.

Zeintzuk izan dira ikerturiko substantzia nitrogenodunak?

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerketa talde batek hartxidura berezkoa eta hartxidura gidatua (legamiak gehituz) alderatu ditugu, ardoaren kalitatean zer eragina duten ikusteko. Azterturiko parametroak aminoazidoak eta aminak izan ziren. Aminoazidoak legamientzako jakiak dira eta hartxiduraren abiadura eragin handia dute. Aminak, berriaz, kontzentrazio jakin baten gainetik pertsonentzako toxikoak izan daitezke.

Ardo desberdinak ikertu zenituzten. Ba al dago alderik ardo batetik bestera?

Ardo gorriak egitean, bai hartxidura berezkoak bai hartxidura gidatuak normaltasunez burutu ziren; aminoazidoen erabilera handia izan zen, eta ardo-

ek alkohol gradu altua eta garratzasun lurrunkor baxua izan zuten, azken hau hagitz interesgarria ardoaren kalitate-arentzat. Ardo zuriak egitean, hartxidura gidatuak ongi gauzatu ziren, baina hartxidura berezkoek zenbait arazo sorrarazi zuten: aminoazidoen erabilera urria izan zen, hartxidurak moteldu ziren eta ardoa ez zen guztiz egin, alkohol gradu baxuko eta garratzasun lurrunkor altuko produktu geratu zela. Ardo guztiek, gorriek zein zuriek, amina gutxi eduki zuten eta, beraz, alde horretatik seguruak edateko.

Zeintzuk dira atera ditzakegun ondorioak?

Ikerketa lan honetan ardo zuria egiteko legamia komertzialak erabiltzea komenigarria dela ikusi da, hartxidurarekin zer ikusirik duten arazoak ekiditen baitira. Hartxidura gidatuak bertze puntu onak dituzte: batetik, ardogintzan garrantzi handia duen prozesua lortzen da, hau da, ardoa urte batetik bertera berdintsua izatea, eta bertetik, produktuaren ezaugarriak zehatz ditzakegu gehien komeni zaigun legamia hautatuz.



Diego Torrea Goñi



Hitzaldia euskaraz Nafarroako Farmaziliarien elkargo ofizialean

Azaroaren 8an, osteguna, Elkargo Ofizialeko aretoan, arratsaldeko zortzietan, Jokin Lorca Diaz lankideak *"Kirolarien errendimendua: entrenamendua, elikagaiak, drogak..."* izenburua duen hitzaldia emango du. Horren karietara Jokinnek ohartxo hau bidali digu: *"Antzinafik ez bakarrik kirolariak baita jende arruntak ere beraien errendimendua hobetzeko asmotan geroz eta bide gehiago aztertu eta probatu dituzte. Baina, non dago jokaera honen zergatia eta ze ondoño alera daiteke?. Kasu zehatz batzuen azterketa egingo dugu".* Esan beharrik ez dago denok gonbidatuta zaudetela iruinxeme jator honek emango duen hitzaldia aditzera.

Izenburua:
"Kirolarien errendimendua: entrenamendua, elikagaia, drogak..."



Udako Euskal Unibertsitatea Gure lehendakariaren esku hartzea

Udako Euskal Unibertsitateak aurten antolaturiko ikastaldian gure lehendakaria den Pello Iturriak kimika sailaren barruan marihuanari buruz eskola eman zuen uztailaren 25ean Iruñeko Larrona ikastetxean.

Marihuanaren printzipio aktiboak dektatzeko metodo kimikoak izan zen Pellok jorraturiko gaia. Kannabisaren printzipio aktiboen farmakozinetika, identifikazioa eta laborategiko entseguak zeintzuk diren azaldu zituen. Hitzaldia arras interesgarria izan zen.

Atentzio Farmazeutikoa II. Nazio Biltzarra

Duela bi urte Gipuzkoako Farmaziliarien Elkargo Ofizialak, Miguel Angel Gastelurrutia buru zelarik, Atentzio Farmazeutikoko lehen biltzarra antolatu zuen arrakasta handia lortuz.

Donostiako biltzar gogoangarri hura bukatu ondoren, *Fundación Pharmaceutical Carek* bigarren biltzarra antolatzeko konpromisoa hartu zuen eta honela, "Paziente zein Osasun-taldearekin harremanetan" ikurrizta harturik, azaroaren 15, 16 eta 17an, Bart-

zelonan egingo da. Iñigo Gorostiza da Biltzarreko batzorde zientifikoko kideen bat eta Juan del Arco, berriz, batzorde antolatzailekoa. Biok FEUSEko kideak ditugu. Bihotzez arrakastarik handiena opa diegu biok.

2001 Europako Hizkuntzen Urtea

Dakizueenez, Europar Batasunak bultzaturik, aurten ospatzen ari gara Europako Hizkuntzen Urtea. Irailaren 26an, hain zuzen, Europako Hizkuntzen Eguna ospatu zen, eta horren karietara, bi egun geroago, Europako Kontseiluko Parlamentuko Biltzarrak premiatu zituen bere Estatu-kideak gutxiengoan dauden hizkuntzak babesteko eta sustatzeko.

Farmazilari euskaldunok, gure arloan euskara erabiltzen, sustatzen eta bultzatzen ahaleginak egin behar ditugu. Azken buruan, gure aurreko farmazilari euskaldunen ondorengoak gara eta euskararen lekukoa pasatu digute euskararen ibilbidean guk segitzeko.

Era berean, egungo Europako agintariari exigitzekoa da lurbira osoaren ondarea den euskara bidegabekeria guztietatik irmoki babestea. Babestea, ez bakarrik hitzez, baita ekintzaz ere.

Ongi etorriak!!

Iazko azaroaren 24an zabaldu genuen FEUSEko kideen zerrenda.

Elkartea osatzen genuen ehun eta laurogeita bi kideen izena eta herria, hain zuzen ere.

Geroztik hona hamasei lankidek eman dute izena.

Elkartekide berriak hauek dira:

Itziar Aiestaran Altzugaray (Lesaka)
Naiara Alberdi Juaristi (Elgoibar)
Olga Alzate Basterretxea (Beinza-Labaien)
Maitane Andueza Alustiza (Legazpi)
Emilia Aranguren Letamendia (Cordobilla)
Maite Arrue Izagirre (Donostia)
Saioa Azkargorta Caballero (Sopela)
Jesus Azkona Mendizabal (Iruña)
Ainhoa Barrutieta Barandiaran (Bilbo)
Juan del Arco Ortiz de Zarate (Bilbo)
Mikel Egurrola Blasco (Pasaia)
Sara Estebanez Santesteban (Iruña)
Angel Garai Garai (Donostia)
Koldo Gorostiaga Omaetxebarria (Gernika)
Iñigo Gorostiza Hormaetxe (Foru)
Arantxa Muñoz Aramburu (Iruña)

Guztiok zarete ongi etorriak!!